

Plataformen GARBIKETA eta ikasturte berriaren PRESTAKETA LANAK

=> Irakasle guztiontzat:

❖ Ikastetxeko ordenadoreak:

Uztailean ikastetxe guztiko ordenadore finko eta portatilak formateatuak izango dira. Zuen profiletan sartuta izan ahal dituzuen artxiiboak behar badituzue azken egun hauetan hartu itzazue.

Ez da beharrezkoa garbiketa egitea, baina beharrezkoa duzuen jaso ezazue!!!

❖ Google Plataforma:

- Irakasleek sortutako ikasleen **talde bereziak** ezabatu egingo dira uztailean zehar. Datorren ikasturte hasieran berriak egin beharko dira.
- Datorren ikasturteko talde naturalak iraileko lehen astean egongo dira prest.
- Mintegiko taldeak EGUNERATZEN hasiko gara eta honenbestez **mintegietako karpeteko sarbidea** baldintzatuta egongo da:
 - Datorren ikasturtean ikastetxean egongo ez diren irakasleak **mintegietatik aterako dira uztailaren 15etik aurrera**.
 - Irakasle berriak (jakin ahala eta ikastetxera gerturatu ahala) **dagozkien Mintegietan sartuko** dira.

❖ Moodle Plataforma:

-  Moodle garbiketa eta 2025-2026 konfigurazioa
- Mintegi buruen bitartez mintegietako ondoko lanak eskatuta egon behar dute:
 -  [Mintegiz mintegi Moodle GARBIKETA MINTEGI ARRUNTAK.docx](#)
 -  [Mintegiz mintegi Moodle GARBIKETA - ZIKLOAK.docx](#)

=> Datorren ikasturtean gure ikastetxean BAI egongo diren irakasleak:

❖ Google Plataforma:

- Uztailaren 1etik aurrera **irakasle.EUS** kontuak erabiltzen hasi daiteke, ingurune honetan jadanik Intraneta eta Ikastetxeetako karpetak agertuko dira (Unitate Partekatuak).
- Irailaren 1etik aurrera beharrezkoa izango da **irakasle.EUS** kontua erabiltzea, izan ere korreoa kontu honetan jasoko da eta ikastetxeko karpetak ere soilik kontu honetan egongo dira.
Irailaren 2an kontu honen ingurukoak gogoratzeko eta azaltzeko saioak egongo dira.

❖ Moodle plataforma:

- Uztailaren 1etik aurrera Moodle plataformara sartzeko erabiltzaile-izena **irakasle.EUS** kontuaren lehen zatia izango da: @-arte bakoitzak duen izena.
- Ikasturtea hasi aurretik ikastaro bakoitza berrabiarazi egin behar da (Oharra: inolaz ere ez dira ikasleak banan-banan ezabatu behar):

 Moodle ikastaroak BERRABIARAZI

=> Datorren ikasturtean gure ikastetxean egongo EZ diren irakasleak:

- ❖ Ikastetxeko Google Workspace kontuak (xx@durangobhi.net) **azaroaren amaieran ezabatuko** dira.

Kontu horri lotutako artxiboak, karpetak, korreoa... ere ezabatuak izango direnez, gomendatzen dizuegu zuen **irakasle.EUS** propioko “Nire Unitatea” karpetara pasatzea daukazuen materiala.

Edo irailean zehar ikastetxe berriko kontura.

Gogoratu Digitalizazio Arduradunon korreoa edozein laguntza eskaera, kontsulta, ekarpenerako ondokoa dela:

ikt-dinamizatzailleak@durangobhi.net

Sara Hawari & Itziar Izurieta